

IRAKASKUNTZA-GIDA

2014/15

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Gasteiz)

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

3. maila

IRAKASGAIA

25934 - Gizarte Proiektuen Diseinua eta Ebaluazioa

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Deskripzioa:

Irakasgai hau, Gizarte Langintzaren Oinarriak, metodologiak, teoriak eta teknikak Moduloaren (54 ECTS) parte da. Gizarte Langintzaren eremuan, gizarte egitasmoen planifikazio, kudeaketa eta ebaluazio prozesuaren ezagutza eta aplikazioan datza. Zehazki, planifikazioaren unitate operatiboena den gizarte proiektuaren diseinua y ebaluazioa landuko da, horrek barneratu behar dituen eduki eta dimentsio ezberdinak aztertuz eta kudeaketaren eta ebaluazioaren garrantzia azpimarratuz.

Gaitasunak:

1. Gizarte planifikazioaren eta ebaluazioaren oinarriak eta mailak ezagutzea.
2. Gizarte proiektu mota ezberdinen arteko ezberdintasunak aztertzea eta ulertzea.
3. Gizarte proiektuen printzipio, irizpide eta fase ezberdinak identifikatzen jakitea.
4. Gizarte proiektuen formulazio, gauzatze eta ebaluazio prozesua eta arlo honetan gizarte langileen jardura ezagutzea.
5. Gizarte esku-hartzerako proiektuen metodologia maneiatzea: azterketa, diagnostikoa, planifikazioa, gauzatzea eta ebaluazioa.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Planifikazioa

- Planifikazioaren aspektu orokorrak: printzipioak, irizpideak, motak eta prozedura.
- Planifikazio mailak: Plana, Programa, Proiektua.
- Gizarte politikak eta plan, programa eta proiektuen arteko erlazioa.
- Planifikazioa Gizarte Langintzan.
- Gizarte diagnostikoa eta honek planifikazioaren diseinuarekin duen lotura.

2. Gizarte proiektuen diseinua

- Definizioa eta motak
- Edukiak: Denominazioa; fundamentazioa (errealitatearen azterketa + diagostikoa); hartzailleak; helburuak; ekintzak eta metodologia; kokapena; egutegia; giza baliabideak eta baliabide materialak; aurrekontua; ebaluazioa.

3. Ebaluazioa

- Definizioa eta ezaugarriak
- Ebaluazioaren edukinak
- Ebaluazio motak
- Ebaluazioaren arduradunak
- Ebaluazio teknikak

METODOLOGIA

Irakaskuntza aktibitateak:

Azalpen teorikoak.

Irakurgaien banakako eta talde osoko lanketak.

Gizarte proiektu eredu ezberdinen taldekako eta talde osoko azterketa.

Gizarte proiektuak burutzeko diru-laguntza publikoak lortzeko formulazio ereduaren taldekako eta talde osoko azterketa.

Eskola praktikoetan gizarte proiektu baten diseinua 3-4 pertsonetako taldeetan eta irakaslearen gidaritzapean.

Gizarte proiektuaren atal bakoitzeko ariketa praktikoak.

Diseinatutako gizarte proiektuen taldekako aurkezpenak.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		22,5						

Legenda: M: Maistrala S: Mintecia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenaailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Banakako lanak %
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) %
- Lanen, irakurketen... aurkezpena %

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Eskolak presentzialak dira, eta irakasgaia modu honetan ebaluatuko da:

- Proiektu sozialaren diseinua: azken notaren %70
- Proiektu sozialaren ahozko defentsa: azken notaren %20
- Eskoletan partaidetza eta ekarpenak: azken notaren %10

Arrazoi justifikatuengatik (eta irakasgaiaren hasieran irakaslea informatuta) eskoletara etorri ezin diren ikasleek kasuan, ebaluazioa honakoa izango da:

- Proiektu sozialaren diseinua: %70
- Proiektu sozialaren ahozko defentsa: %30

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Ez dago ikasmaterialik. Hala ere bibliografia atalean agertzen diren materialak derrigorrez erabiliko dira irakurketak lantzeko.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- ANDER-EGG (2000): “Pautas orientaciones para elaborar un diagnóstico comunitario”; in Metodología y práctica del desarrollo de la comunidad, Ed. Lumen, Buenos Aires. (7. Kapitulua).
- CARRION, Iñigo eta losune BERASATEGI (2010): Proiektuak lantzeko gida, Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutoa, Eusko Jaularitza, Gasteiz.
- PÉREZ ARIAS, Oscar (koord.) (2010): Guía de Evaluación de Programas y Proyectos Sociales. Plataforma de ONG de Acción Social, Madrid.
- PÉREZ DE SAN ROMÁN, Nahia eta Oskar FERNÁNDEZ (d/g): Egingo dugu proiektu bat? Hasieratik bukaerara, zer izan behar duzun gogoan, ERDU Argitalpenak, 2. Zbk, Gasteiz.
- RAYA DíEZ, Esther (koord.) (2011): Herramientas para el diseño de proyectos sociales, Errioxako Unibertsitatea.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- ALVIRA. F. (1991): Metodología de la evaluación de programas. Madril, CIS.
- ANGERA. Mª T. eta beste batzuk (1995): Evaluación de Programas. Madril, Síntesis.
- BERNAZZA, Claudia (2006): La relación entre política, planificación y gobierno, in <http://www.claudiabernazza.com.ar>
- BUSTOS. C., Michael. N. (1995): Guía para la gestión de proyectos. Bartzelona, Paidós.
- CABRERA F. (2005): La evaluación participativa: concepto y fases de desarrollo. Madril, Cáritas.
- CRUZ ROJA (2000): Manual de planificación de proyectos sociales, Madril.
- FERRAN ZUBILLAGA, Ane (2008): "Técnicas de planificación y gestión", in GUINOT, Cinta, Métodos, técnicas y documentos utilizados en Trabajo Social. Colección temas de Trabajo Social. Bilbao, Deusto Unibertsitatea.
- GARCÍA HERRERO, Gustavo eta RAMÍREZ NAVARRO, J.M (2006): Manual práctico para elaborar proyectos sociales, Madril, Siglo XXI.
- LOPEZ PELAEZ (ed.) (2010): Técnicas de diagnóstico, intervención y evaluación social. Universitas, UNED, Madril.
- MARCHIONI, M. (2007): Planificación social y organización de la comunidad; alternativas avanzadas a la crisis (7ª ed.), Madril, Ed. Popular.
- PEREZ SERRANO, G. (1994): Elaboración de proyectos sociales, Madril, Narcea.
- SHAW, I. (2003): La evaluación cualitativa, Bartzelona, Paidós.

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

Gizarte Ekintzarako GKE-en Plataforma: <http://www.plataformaong.org/>

OHARRAK